

Bere lehen nobela historikoa aurkeztu zuen Txillardegik

«Putzu» Bigarren Karlistaldian girotu du eta donostiar karlista bat da protagonista

1873. urtea da, Donostian. Urtebete bada Bigarren Karlistaldia hasi zela eta Joxemari Arruabarrena «Putzu», 22 urteko donostiar karlista gaztea ez da lasai bizi liberalen armada arrotzek menderatutako hirian. Pena du bere betiko Putzu kalea utzi beharra baina, bere barruko ezinegona eraman ezinda, armak eskutan hartuta lagundu nahi du foruen defentsan, karlistekin bat eginda. Boluntario alde egingo du eta Euskal Herrian barrena ibiliko da. Trama horren bueltan nobela historiko mardula eraiki du Txillardegik.

Joxeari AGIRRE | DONOSTIA

Txillardegiren nobela berriko protagonista, Joxemari Arruabarrena *Putzu*, kazetaria da eta "El Cuartel Real" aldizkariako erredaktore gisa armada karlistaren atze-aurre guztiak ezagutuko ditu, bai frenteko borroka eta larrialdiak eta bai atzegoardiako diplomaziaren mugimenduak, bai garaiaren loria eta bai porrotaren mingotsa.

Nobela historikoa da beraz, jantzia eta dokumentatua, zehaztasun historiko eta geografiko horitua. Xehetasun horien gainetik, ordea, Xabier Mendiguren editoreak aurkezpenean esan zuenez, Txillardegiren betiko kezka eta ezaugarriak aurkituko ditu irakurleak bertan: «pertsoneia gatazkatsua baten barne-mundu urdina, galduz doazen denbora eta lekuen oroimen malenkoniatsua eta Euskal Herriaren askatasunarekiko konpromiso eta amodioa».

"Putzu" nobelaren aurkezpenera ezker-eskuin bi adiskide zituela agertu zen Txillardegik. Iñaki Eganak paralelismo bitxiak egin zituen nobela historiko honek islatzen duen euskal gizartearen eta garuaren artean. «Bigarren Errepublikaren garaian Gipuzkoako hogeita hamar herritar karlistek irabazi zituzten hauteskundeak. Hirurogei urte geroago, joan den igandeko hauteskudeetan, hogeita hamar herri horietan EH izan da garaila. Beste datu bat: Euskal Herriarrok taldeak gehiengo absolutua lortu duen herriak Santa Kruz apaizaren taldeko kideenak ziren orain dela ehun eta hogeita bost urte», esan zuen Iñaki Eganak idazle eta editoreak.

Txillardegik aurkezpenera eraman zuen bigarren adiskidea adiskide zahar bat zen, Ramon Labaien, Donostiako alkaite ohi eta Jaurilantzeko Kultura sailburu izana. «Ez dakit zehazki zenbat urte diren baina 50en bat izango dira elkar ezagutzen dugua. Orduan euskaldun berria zen Txillardegik. Orain ere ez da zaharra, euskaldun urtesua dela esango nuke eta aberzalea kementsu, indartsu eta emankor izaten segitzen dugu», esan zuen Labaienek.

Izugarriko lana egin duela esan ondoren, liburua eskuetan hartu eta azalean agertzen den irudia aldiak irabazteko batean nola ikusi zuen adierazi zuen. «Argazkiaren oinaren zera jartzen zuten: "Voluntario tolosano vigilando San Sebastian", gipuzkoarrek ez baitziren fidatzen kaskarnez», jarraitu zuen.

Nobela historiko horren bertuteak gorapaitu zituen Labaienek. «Nobela ederra da baina historiala ere somatzen da bertan

eta historiagile onek egiten dituen bezala iragana aktualitate bihurtzea lortzen du, nobelan agertzen den Donostia gaurkoa bauta neurri handi batean, 125 urteren buruan gasteak orduko kezka beretsuekin segitzen baitute», esan zuen.

«Baina historiari etorkizunari begiratu behar dio -jarraitu zuen-. Abertzaletasuna tinkotzea lortu dugu, baina borroka garaiak datozela ikusten dut, tirorik eta gorrotorik gabeko borroka, baina Laugarren Karlista Gerra datorrigi eta irabazi egin behar dugu».

Karlistasmoa, paradigma

Txillardegik hartu zuen hitza, azkenik, eta karlistasmoa Euskal Herriak bizi izan dituen deskalabruen paradigma zela esan zuen. «Euskal Herriak beti izan duen eta oraindik ere baduen tentazioa izan da hori: soluzioak beti ere kanpogan bilatzea».

Karlistasmo familia bidez jasoa eta haurtzaroen ezagutu duen giroa zela esan zuen ondoren. «Matia Asiloan zeuden zaharrak Ondarretara jeitsien zirenean, beren pasadizoak kontatzen zituzten, gu hondartean jolasean gobilitzen bitartean, eta Bigarren Karlista Gerrako gertaerak ziren. Geure birraitona tolosarra zen eta Santa Kruzen bila ibilia zela entzun izan nion aitari», jarraitu zuen.

Euskal kultur pizkundea eta arnismoa bera karlistasmoak jaso zirela esanez bukatu zuen Txillardegik bere aurkezpenerako jarduna.



Jose Luis Alvarez «Txillardegik», Iñaki Eganak eta Ramon Labaien aldean dituela.

Andres CANELLADA

Idazle baten seigarren nobela

J. A. | DONOSTIA

Jose Luis Alvarez Enparantzak *Txillardegik* 1929an jaio zen Donostian eta Euskal Herriari dagokionez, mende honen bigarren zatia markatu duen pertsonetako bat izan da, bai politikaren arloan eta bai euskararenean ere. Euskarara batuaren bultzatzaile izan zen, euskal literaturaren berritzaile eta politikari dagokionez, Ekinen eta gero ETaren sortzaile. Bere literatur lanei dagokionez, 1959an eman zuen argitara "Leturaren egunkari izkintza". Ferrulen soldaduzka egiten zegoela idatzia eta garaiko euskal letren giro etsian sekulako

abarrotsa sortu zuena. «Francorri esker ikasi nuen lanperrak jaten eta Franco jaio zen herriari bertan gainera», esan zuen atzo umorez. «Peru Leartzako», «Elsa Scheelen», «Haizeaz bestaldetik eta «Ekkiru» etorri ziren gero, hamarna urteko tartearrekin. Txillardegik 70 beteko ditu aur-

ten eta 80 bete aurretik beste nobela bat egiteko gonbita luzatu zion Xabier Mendiguren. Oraindik nobelatarako pertsonaiak kezka filosofiko edo ideologikoak agertzeko erabili izan ditu egileak, inoiz leku eta denbora jakin netan kokatu gabe. «Putzu»n arras aldatu du bidez Txillardegik.

Iñaki EGANA



Txillardegiren nobela autobiografikoa da

Beste garai batean gaudu. Ehun eta hogeita bost urte pasatu dira Bigarren Karlista Gerratik, eta bitartean gauza asko gertatu dira, agian gehiegi. Hala dirudi. Modernitatearen arrastoak toki guztietan ditugu. Errepeideak, aboiak, telebisita, baita harremanetan sartuta daudenak ere. Gure ingurua erabat aldatu da. Internet sarea, telefono mugikorrak, sateliteak...

Entzuna dugu XIX. mendeko karlistek hiru-buruak setiatzen zituztela, XX. mendeko maioistek egiten zuten bezala. Era berean, entzunka ditugu Santa Kruz apaizaren abenturak, beren inkomformismoa, haren taldeak egiten zuten sarraskiak eta abar. Oinez ibiltzen zen taldea. Eta historiako kontuak omen dira. Gaur egin ahaztuta dugu zer den ibiltzea. New Yorken sei orduetan egon gaitozke. Orain dela ehun urte, ordea sei ordu behar zuten Donos-

tatik Tolosara iristeko. Bai oniatik Madriala, eguneroko diligentzia, bi egun eta erdi. Izan ere, egungo gazte batek esango liguke karlisten urteak eta paleolitikoak garai bera izan zirela. Santa Kruz apaiza, Zumalakarregi, Eneko Arntza eta Joana Albrek mende berean jaio zirela. Oso urrutu geratzen dira gauza horiek guztiak. Hala omen da.

Baina ni ez nago hain ziur. Eta uste dut Txillardegik bera ere ezagotu. Nirela badakit. Eta Txillardegirena hala dela uste dut, bere liburua irakurri ondoren. Ziur nago Txillardegik, une hauetan, azken hauteskundeetako emaitzak jakin eta gero, liberalak hiri nagusietan nagusitu direla pentsatzen ari dela, salbuespenak salbuespen, eta karlistak herri txikietan. Irurtzen, 104 urteko emakume bat udal hauteskudeetan aurkeztu da. Alderdi Karlistan, jakina. Joan gaitzen pixka bat: urrutago, Bigarren Errepublikaren garaira. Gipuzkoako hogeita

hamar bat herritar karlistek irabazi zituzten hauteskundeak. Hirurogei urte geroago, joan den igandeko hauteskudeetan, hogeita hamar herri horietan Euskal Herriarrok izan da garaila. Beste datu bat: Euskal Herriarrok taldeak gehiengo absolutua lortu duen herriak Santa Kruz apaizaren taldeko kideen herriak ziren, orain dela ehun eta hogeita bost urte.

"Putzu" nobela honetan ideia horiek azaltzen dira. Agian ez nik esan dudana bezala, baina bai, ordea, ildo horretatik. Norbaitek esan diezadake orain esango dudana erokeria bat besterik ez dela, baina nire ustez Txillardegiren nobela autobiografikoa da.

Garaiak ezberdinak omen dira, baina protagonistak kasik ez. Gerra ala bakea, abertzaletasuna ala liberalismoa, euskarra ala erdara, lurraldetasuna ala zatiketa, askatasuna ala exilioa. Gauza horiek guztiak Txillardegik suiritu ditu. Baita Joxe Mari Arruabarrenak ere. Txillardegiren nobelako protagonistak. Bata eta bestea berdinak dira.

Daukadan zantalza bakarra liburua honetako amodio istorioari buruzkoa da. Horren inguruan, idazleak jakingo du noraino helzten den bere autobiografia. •